

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bakioko Udala****Bakioko udal kiroldegiko prezio publikoen Ordenantzaren aldarazpenaren behin betiko onarpena (iragarkia 2018/11/03 Bakió).**

Bakioko Udaltzakoak, 2018ko irailaren 27an egindako ohiko osoko bilkuran, honako hau erabaki zuen: Bakioko udal kiroldegian antolatu eta garatzen diren kirol jardueretan izena emategatiko prezio publikoak arautzen dituen ordenantzaren aldarazpena hasiera batean onartzea.

Gauzak horrela, espedientea jendaurrean azaldu zen hogeita hamar egun baliodun epean, udal ediktu oholean, udaleko web gunean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean ipinitako iragarkien bidez.

2018ko irailaren 27ko erabaki hori eta berari buruzko aurrerakin guztiak arauak agintzen duten epean jendaurrean ezarri eta inork ere erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ez duenez gero, erabaki hori, behin betiko onetsi dela ulertu behar da.

Ordenantzaren aldarazpenaren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, testua argitaratu eta bi hilabeteko epean, beti be iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik zenbatzen hasita. Horrela bada, Administrazioarekiko Auzi Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46 artikulua ezarritakoarekin bat etorritik.

Era berean, aldarazpena oso-osorik argitaratzen da, ordenantzan era honetara jasotzeko:

1.2.) Lau hileko bonua**1.2.1. Familiarra**

- Famili unitatea (guraso bakarreko familiak % 50): 120,00 euro.
- 4-17 urteko seme edo alaba bakoitzeko: 24,00 euro.
- 18-25 urteko seme edo alaba bakoitzeko: 40,00 euro.

1.2.2. Indibiduala: 72,00 euro.

* Langabeak, desgaituak, 25 urtetik beherakoak eta 65 urtetik gorakoak: %20ko deskontua.

* Erroldatuta ez egoteagatik igoera: %20.

1.6) Jarduera bonua**1.6.1. Hamabi jarduera X 10eko bonua (Bi hileko bonua)**

- Bazkideak: 54,00 euro.
- Ez-bazkideak: 69,00 euro.

1.6.2. Bost (5) jarduerako bonua (hileko bonua)

- Bazkideak: 28,50 euro.
- Ez-bazkideak: 36,50 euro.

* Langabeak, desgaituak, 25 urtetik beherakoak eta 65 urtetik gorakoak: %20ko deskontua.

* Erroldatuta ez egoteagatik igoera: %20.

Kirol urtebetetzeak

- Oinarrizko tarifa gehienez 10 pertsona dituzten taldeentzat (prezio itxia, 10 pertsona baino gutxiago etorri arren).



- Erreserba bazkide batek eginez gero: 60,50 euro.
- Erreserba ez-bazkide batek eginez gero: 80,50 euro.
- Aste barruan nahiz asteburuetan egingo dira.
- Prezio barruan honakoak: monitorea, jardueren materiala, zerbitzuaren dinamizazioa eta instalazioaren erabilera.
- 10 partaideko kopurua gainditzen duen pertsona bakoitzak 3,00 euroko sarrera ordainduko du instalazioan.
- Jardueraren iraupena 1,5 h.
- Aukeratzeko moduko 5 programa desberdin:
 - Ur jardueren programa.
 - Multikiroleko programa.
 - Kirol Gynkhanak.
 - Munduko kirolak.
 - Programa mistoa (ura + lurra).

Multikirola 3-6 urte / 7-10 urte

Larunbat eta igandeetan: 10:15 - 11:15 (7-10 urte) eta 11:15 - 12:00 (3-6 urte).

Sarrera soltea

— Bazkideak: 4,00 euro.

— Ez-bazkideak: 5,50 euro.

Bakion, 2018ko azaroaren 27an.— Alkate andrea, Amets Jauregizar Baraiazarra